

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Manuel Galarraga Aldai*

*Soraluze,  
Gipuzkoa  
(1924)*

Aurkibidea



## Biografia



Gurasoak kaletarrak ziren, eta bera Goiko kaletako 8. zenbakian jaio zen. Lau urtetatik sei urtera arte eskolaurrean ibili zen Pacífica Mendikuterekin. Gero Maristen eskolan ikasi zuen gerra hasi zen arte. Hamahiru urterekin "Banco Guipuzcoano"n hasi zen lanean. Urtebete geroago Madina torlojugintza lantegira joan zen eta gero Sapa kanoi-lantegian hasi eta 28 urtetan egin zuen lan. "Talleres Amutxastegi"n tailerreko buru izan zen 8 urtez, beste urte bat Mungian aritu zen, eta gero Eibarko Txantoiakoan Star pistolak egiten jubilatzen arte. Sorluzeko Dolores Izagirrerekin ezkondu zen. Bost seme-alaba dituzte.

## Zintak

### SOR-063

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Sorluz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-10-07
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

### SOR-064

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Sorluz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-10-07
- **Iraupena:** 12 min
- **Euskarria:** MiniDV

## Pasarteak

### 1. 12 urte zituela, gerra hasi zen

- **Erref:** SOR-063/002
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:01:32. **Bukatu:** 00:04:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

#### **Laburpena:**

<p>Lau urtetik sei urtera bitartean haurtzaindegian ibili zen, Pacifica Mendikute anderearen zaintzapean. Gero maristen eskolara joan zen, gerra sortu zen arte. Bere lagun batzuk 10-11 urterekin lanean hasi ziren.</p>

## **2. 14 urterekin bankura lanera**

- **Erref:** SOR-063/003
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:04:09. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Banketxeak

#### **Laburpena:**

<p>14 urterekin "Banco Guipuzcoano"an hasi zen lanean. "Ex combatientes" eta "ex cautivos"entzat omen ziren orduan bankuetako lanpostuak. Posta jaso, mandatuak egin eta antzeko lanak ziren Manuelen betebeharrak.</p>

## **3. Sorluzen diru asko mugitzen zen**

- **Erref:** SOR-063/005
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:06:56. **Bukatu:** 00:09:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

#### **Laburpena:**

Errepublikako pezeta zen legezko dirua, baina Eusko Jaurlaritza eratu zenean, bere diruarekin ordaintzen zituen funtzionario eta soldaduen soldatak. Sorluzen jarduera industrialak diru asko mugitzen zuen. Sapa (Sociedad Anónima de Placencia de las Armas), Sacia, Alberdi, Madina, Amutxastegi... tailer asko zeuden. Hilean hamar ogerleko irabazten zuen Manuelek.

## **4. Madina tailerretik Sapa lantegira**

- **Erref:** SOR-063/006
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:09:24. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

#### **Laburpena:**

Bankutik Madina tailerrera joan zen lanera. Torloju-tailerra zen, baina armentzako espoletak egiten ziharduen orduan. Bankuko bulego-lana utzita,

biltegiko eskorgarekin ibiltzera pasatu zen Manuel. Handik laster, Sapa lantegira joan zen.

## 5. Kanoi lantegitik "Talleres Amuchástegui"ra

- **Erref:** SOR-063/007
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneko lantegiak

### Laburpena:

Kanoi lantegiaren izena Sapa zen. Han ikasi eta landu zuen Manuelek bere mekaniko lanbidea, ingeniariaren laguntzaile izateraino. 28 urtez jardun zuen lanean kanoi lantegian. Gero "Talleres Amuchástegui"ko tailerburu izan zen, autoentzako ordezeko piezak egiten. 8 urtez jardun zuen bertan.

## 6. Bizkaitik Eibarko "Star" pistola lantegira

- **Erref:** SOR-063/008
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:15:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

### Laburpena:

Bizkaiko Mungiara joan zen lanera, trokelgintza tailer batera. Urtebete han jardun eta gero, Eibarko "Star" pistola lantegian hasi zen lanean. "Txantoiarekua" izenarekin ere ezagutzen zen lantegi hori.

## 7. "Star"etik hartu zuen erretiroa

- **Erref:** SOR-063/010
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:15:41. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

### Laburpena:

"Star" lantegian armadarentzako pistolak eta metrailetak egiten zituzten. Polizia eta Guardia Zibilen armamentua berriztatzeko lehiaketa irabazi, eta lanez lepo omen zegoen "Star". Bertan hartu zuen Manuelek erretiroa.

## 8. Kalitate maila nola igo zuten kanoi lantegian

- **Erref:** SOR-063/011
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:18:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

Sapa-n lanean ziharduela, Suediako Bofors armagintza etxeko patente bat lortu zuten. Horren ondorioz, kalitate arauak ezagutu zituzten eta bertako ekoizpenaren kalitateak jauzi handia eman zuten. Arabia Saudirako kanoiak egin zituzten.

**9. Sorluzen ekoiztutako OTANerako kanoiak**

- **Erref:** SOR-063/012
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:18:37. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

OTANerako armak ekoiztu zituzten Sapa-n. Itxura denez, European Bofors markako kanoirik onenak Sorluzen egiten ziren. OTANeko inspektoreen istorio bat azaltzen du Manuelek.

**10. Lantegiko zuzendaria "komandantea" zen; sail-arduraduna, berriz, "sarjentua"**

- **Erref:** SOR-063/013
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

**Laburpena:**

Gerra denboran, jende asko etorri zen kanpotik Sorluzera. Bertako langileak, militarizatuta zeudenez, ez ziren gerrara soldadu joaten. Gainera, jorjala berdin-berdin jasotzen zuten. Lantegietako karguek militar izenak zituzten. Zuzendariari "komandantea" esaten zioten, eta bere izarrak soinean zeramatzan; talde-buruak "kabuak" ziren...

**11. Mutikoak gerrara behartuta eraman zituzten**

- **Erref:** SOR-063/014
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:26:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena:**

<p>1941eko soldadu kintari <em>La Quinta del Biber&ocute;n</em> deitu zioten, 17 urteko mutilak gerrara eraman zituztelako. Hori izan zen Sorluzetik

joan zen lehenengo kinta, ordura artekoak lantegietan militarizatuta egon baitziren. 1940ko kintako gazte batzuk ere eraman ei zituzten.</p>

## 12. Zugazti anaiak Soraluzen desterratuta

- **Erref:** SOR-063/015
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:26:54. **Bukatu:** 00:28:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

### Laburpena:

Zugazti anaiak, apaiz euskaltzaleak biak, Donostiatik Soraluzera desterratu zituzten. Manuelen etxean egon ziren apopilo.

## 13. Dotrina, euskaraz ikasten zuten gauza bakarra

- **Erref:** SOR-063/016
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:28:28. **Bukatu:** 00:31:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

### Laburpena:

Gerra aurretik, herriko Guardia Zibileko kabu baten seme euskalduna lagun izan zuen Manuelek. Haurtzaindegian euskaraz mintzatzen ziren, baina maristetan erdaraz ikasten zuten, dotrina salbu, ikasle talde baten gurasoek halaxe eskatu zutelako.

## 14. Beisbol jokia Soraluzen

- **Erref:** SOR-063/017
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:31:27. **Bukatu:** 00:33:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

### Laburpena:

<p>Jolas nagusia euskal pilota zen. Maristak Frantziatik bidali zituztenean, batzuk Soraluzera etorri ziren. Amerikarren "baseball" (beisbola) jokia ekarri zuten eurekin. Manuelek ikasi zuen joko hori, eta "jolasak" egitea esaten zioten beisbolean jokatzeari.</p>

## 15. "Joko garbi", zestako joko zaharra

- **Erref:** SOR-063/018
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:33:23. **Bukatu:** 00:37:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

**Laburpena:**

Txistera zestekin jokatzeko "joko garbi" izeneko joko zaharra azaltzen du. Soldaduskara joan zenerako, Soroluzeko "Club Deportivo"ko kidea zen Manuel. 1946an jokatu zen "joko garbi"ko partida bat Soroluzen.

**16. Soroluzeko biztanle eta lanpostuak 60ko hamarkadan**

- **Erref:** SOR-063/020
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:42:14. **Bukatu:** 00:46:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

**Laburpena:**

<p>Hogei bat tailer ezkutatu omen dira Soroluzetik. 60ko hamarkadan zinegotzia izan zen Manuel. 4.500 biztanle inguru zituen herriak, eta ia 2.600 lanpostu zeuden bertan. Kanoi lantegia, eskopeta eta torlojugintza ziren jarduera nagusiak.</p>

**17. Herriaren aldaketak**

- **Erref:** SOR-063/021
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:46:26. **Bukatu:** 00:48:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena:**

Azken eskopetatileak jubilatatu ziren, eta gaur ez da inolako armarik ekoizten Soroluzen. Herriaren fisionomia trenbide zaharraren inguruan aldatu da gehien. Etxe berriak ere asko eraiki dira. Ezkondu zen arte ez zuen dutxa etxean eduki. Etxe berrira igotzeko 144 eskailera maila igo behar izaten zituen. Lehen galdategi bat zegoen lekuan bizi da orain.

**18. Zezen korrida Soroluzen duela 500 urte**

- **Erref:** SOR-063/022
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:48:38. **Bukatu:** 00:51:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

**Laburpena:**

Manuelen amaginarreba Irure baserrian jaio zen. Ezagutzen den lehen zezen korrida Irure baserrian izan omen zen. Gai honen gaineko azalpen batzuk ematen ditu.

**19. Gerraostean janaririk ez; kanoi lantegiko ekonomatza**

- **Erref:** SOR-063/023
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:51:29. **Bukatu:** 00:54:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena:**

Gerraostean baserrietara joaten ziren arto eta gari eske. Gero errotan irinagatik trukutzen zuten. Kanoi lantegiak ekonomatza jarri zuen bertako langileentzako. Errazionamenduko ogia oso txarra zen jateko.

**20. Hildako txerri bat ekarri zuten estraperloan Arabatik**

- **Erref:** SOR-063/025
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:54:22. **Bukatu:** 00:58:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena:**

Ekonomatza aparte, bizpahiru denda zeuden herrian. Errazionamenduko txartelarekin joaten ziren erostera. Ehiztari soraluzetar batzuek txerria ekarri zuten estraperloan Arabatik. Hil, garbitu eta gero txaketa eta prakak jantzi zizkioten autoaren atzeko aulkian jartzeko, belarriak txapel batekin estalita. Patata eta garia ere ahal zuten moduan ekartzen zuten estraperloan.

**21. Sinforiano aitajauna asmatzailea**

- **Erref:** SOR-063/026
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:58:14. **Bukatu:** 01:01:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

Manuelen aitajaun Sinforiano Aldaik eskopeta kanoiak zulatzeko makina asmatu zuen. Ordurako aurrerapen handia izan zen. Sinforiano gazterik hil zen, eta Felipe Agirregomezkortak jarraitu zuen tailerrarekin.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com